

Liburutegiaren Nazioarteko Eguna ospatu dute Busturiko liburutegian

Jose Maria Uzelai ikastetxeko umeez ipuin kontalariaren bi saio izan zituzten atzo goizean, liburutegian.

Olaia Zabalodo. Busturia

Altamira auzoko liburutegiak Liburutegiaren Nazioarteko Eguna ospatu zuen atzo. Goizean Jose Maria Uzelai herri ikastetxeko ikasleak izan ziren protagonistak. Eurentzako ipuin kontalari saioa antolatu zuen liburutegiak.

Bi taldetan banatu zituzten ikasleak. Hiru eta zazpi urte bitartekoak izan ziren lehenengo txandako entzuleak. Bigarren txandan, oster, zortzi eta hamaika urte bitartekoak parte hartu zuten.

Ordubetez, Begoña Gomez Abrisketa ipuin kontalariaren 'Kandelen argipean' ipuin saioaz gozatu zuten. Ipuinak entzun ez ezik, parte hartzera ere animatu ziren ikasleetako batzuk. Klasean baino hobeto pasatu zuten atzoko saioan.

Liburu markatzaileak ikusgai

Bestalde, azken egunetan umeez eskolan liburu markatzaileen tailerra izan dute. Egin dituzten liburu markatzaile guztiak liburutegian izan ziren atzoko egunean ikusgai.

Gurasoentzako txoko bat ere antolatu zuten. Bertan, euren seme-alaben hezkuntzari buruzko aholkuak ematen dituzten liburuak eta aldizkariak ipini zituzten. Guzti horrez gain, atzoko egunean liburutegira hurbildu zirenek liburu bat jaso zuten opari.